

❧ Hitz eta Pitz ❧

Pottoko izan zen, Rita da, Xola,
Iholdi, Usoa... izan dira

Serieak eta pertsonaiak euskarazko haur- eta gazte-literaturan

MIEL A. ELUSTONDO



Kultura-etxeko liburuzaina da Marisol. Galdezka joan natzaio. «Zergatik gustatzen zaizkie umeei serieko pertsonaiak?» «Gustura jakingo nuke!... Neuk baneki!...» Ez dakienaren aitzakiak eman ditu lehenengo, baina laster da zuhur erantzuten.

«Identifikazioa izan liteke giltza. Haurrak halako edo halako pertsonaiarekin identifikatzen dira eta, bata irakurri ondoren, beste bat irakurtzera jotzen dute, eta hirugarrena, eta atzetik datozen guztiak. Gainera, lehenengo liburua irakurri duelarik, besteak zertan izango diren badaki, denak igualak dira-eta. Istorioa nola bukatuko den ere ez da misterioa. Aldaketa txiki bat hemen, beste aldaketa bat han, eta eginda dago liburua.»



Egilea nor den ez badakigu ere, zenbait kasutan bederen. «Hori ere egia da, ez dago egilerik! Hori ere deigarria da.» Erroskillak garai batean, serieko liburuak orain, nahiz ez den gauza berria, Marisolek dioenez.

«Gure sasoian ere baziren horrelako pertsonaiak. Orduan *Bostak* izango zen, edo *Hollistertarrak*, edo *Nikolas Txiki*. *Tintin*, *Asterix* eta gainerakoak ere seriekoen artean dira.»

Pottoko, Risky, Flannery...

Joan Mari Torrealdaik gerraosteko euskal liburugintzaren berri zehatz ematen du *Euskal Idazleak Gaur* liburuan. Nekez ageri dira han haur-literaturako liburuak. Bakan dira euskarazko liburua burua jasotzen hasi zen sasoian. Uste izatekoa da Abata Lontzik, 1947an, Txileko Santiagon argitaratu zuen *Ipuintxoak* liburua haurrentzat izatea. Halaber, ondoko urteko *Bigarren ipuintxoak* ere. 1947 hartako Yllaren *Leoi-kumea*, Orixe itzultzaile, ziur dakigu haurrentzat idatzi zuela egileak, hots, Ylla argazkilariak.

70eko hamarkada arte, garaiko argitaletxe berriak eratu arte, ez da izango orain ezagutzen dugun moduko liburu ekoizpenik, ez egiturari dagokionez, ez kopuruari, ez kalitateari. Serieko pertsonaiak euskaraz ira-

kurtzeko aukeraz ari garela, berriz, Iñaki Beobideren ekimena da aipagarri, *Asterix* euskaraz argitaratzen hasi baitzen, Mas-Ivers etxearekin elkarlanean. Beobide, ordurako, liburu ilustratuak argitaratzen jardun zuen Timun Mas argitaletxearekin lanean. Giro hartan sortu zen *Asterix* euskaraz publikatzeko asmoa. *Tintin* ere aurrekoaren bidea egiten hasiko zen...

Hala ere, Francoren heriotzak eta diktaduraren amaierak bestelako bideak ireki zituen euskarazko argitalpenentzat, eta, besteak beste, haur- eta gazte-literaturarentzat. Elkar, Erein eta Pamiela argitaletxeen sorrerak ordu arte ez bezalako haizea ekarri zuen euskarazko liburuetara. Ikastolak hazten ari ziren ordurako, gero eta gehiago ziren ikasketak euskaraz egiten ari ziren haurrak eta, bistan denez, askotariko materialak behar zituzten. Horrela sortu ziren haur- eta gazteentzako-bilduma handiak. Idazleak abian jarri ziren, eta, tartean, serieko pertsonaiak agertu ziren, euskaraz sortuak. 80ko hamarkadakoak ditugu Pello Añorgaren *Pottoko*, Josemari Iturrালের *Risky*, Anjel Lertxundiren *Madame Kontxesi-Urbe*, *Brigada & Detektibe*, Pako Aristiren *Antonello*, eta Mertxe Pandeletxe eta Mari Bexamel... Era berean, Bernardo Atxagaren *Flannery eta bere astakiloak*, *Xola*, *Bambulo*, Xabier Mendiguren Elizegiren *Joxeme*, Mariasun Landaren *Iholdi*, eta, geroago, Jasone Osororen *Jara*, Patxi Zubizarretaren *Usoa*, Mikel Valverderen *Rita*, Ana Urkizuren *Andoni*, Juan Kruz Igerabideren *Jonas*, Antton Duesoren *Punki*—honek du errekorra, hamabost ale egin baitzituen komikitik narratziora jauzi eginik!— benetako serieak osatu zituzten, osatzen ari dira zenbaiten kasuan, eta protagonista bera zuten liburu eta istorioak argitaratu zituzten bata bestearen ondoren.





Liburuok arrakasta izan zuten, irakurleak harrera ona egin ohi zien, eta idazleek pertsonaia beraren atal gehiago osatu zituzten. Liburu batek bestea ekarri zuen, etengabeko soka, eta irakurlea ere soka horixe lotu zitzaion. *Pottoko* bat irakurri eta gustatutako irakurleak ez zuen etsiko Pello Añorgaren pertsonaiaren abentura gehiago irakurri arte. Hogei urte geroago, berdin jokatzeko du irakurleak Jasone Osororen *Jararen* liburuekin. Eta 2011ko Durangoko Azokan, berriz, irakurle-ilara luzea zuen zain Toti Martinez de Lezeak *Nur*-en narrazio berria sina ziezaien.

Pertsonaia kuttunaren liburuak gorde nahi izaten dituzte irakurleek, gorde eta osatu, hau da, bilduma egin. Harritzekoa ere ez da hori, gizakiak beti izan baitu gauzak osatzeko joera. Etorkizunean erabiltzeko gorde, nola txakurrak gordetzen duen hezurra, hurrengo batean erabiltzeko. Eta, gordetzekotan, errazago zaigu ale berdintsuak jasotzea, homogeneousunak bildumaren eitea errazten baitu. Batasuna ematen dio.

Serieak egiteak ez du, alabaina, ziurtatua arrakasta, irakurleak sorrerako pertsonaiari egin dion harrera beroa gorabehera. Patxi Zubizarretak, adibidez, esperientzia gazi-gozoa du. *Pantaleon elurrezko panpina* liburuari buruz ari da:

«Euskadi Saria jaso izanak eta Durangoko azokan Jokin Mitxelenak eta biok izan genuen esperientziak bultzatu gintuen bigarren liburu bat egitera. Baina bigarren hau guztiz oharkabea igaro zen eta gure gogoahuldu egin zen».



Sorrera

Irakurleak gustuaren, senaren eta modaren arabera jokatzeko badu ere, besterik da idazleari dagokionez. Honek sortzea du beti ardatz, era batera edo bestera. Esate baterako, *Rita* pertsonaiaren sortari buruz ari da Mikel Valverde idazle eta ilustratzailea.

«Rita marrazki batetik jaio zen. Lehenengo, irudia sortu zen. Behin eta berriz eta askotan marraztu nuen, hainbat egoeratan. Ondoren, haren nortasun literarioa lantzen hasi nintzen, pentsatzen ari nintzela, lan egiten nuen bitartean. Inguruan nituen haurrei begiratu nien, batetik, eta, bestetik, oroitzapenak bildu nituen. Horrekin batera, fantasiara jo nuen.»

Mikel Valverde inguruko haurrei begira, oso hur zuen Toti Martinez de Lezeak non begiratu: biloba du Nur.

«Oso neska berezia da. Ama euskalduna, aita siriarra, eta duela zazpi urtetik hona Txinan bizi dira hirurak. Lehenengo istorioa gure alabak eskatuta idatzi nuen, amona idazleak bere bilobari zerbait idatz ziezaion nahi zuelako. Pertsonaiaren ezaugarriak benetako Nurren izaeran oinarrituak daude, oso neska alai eta dibertigarria da.»

Garmendia sortu zuen Kirmen Uribek, osabak kontatutako historia abiapuntu. Argentinan izaniko lapurra ei zen Garmendia, eta ttikitan Garmendia zirela egiten zuten jolas osaba zenak eta lagunek. Ilobak egokitu egin zuen osabak kontatua.



«Lapurra bai, baina baldresa izango zen nirea, eta Argentinan gabe, Kalifornian ibilaraziko nuen. Idazten hasi aurretik, bestalde, banekien gaur eguneko gurasoen tankerakoa izango zela, berrogei urtetik gorakoa, eguneroko bizitzan ondo moldatzen ez dena, akastuna. Oraintxe sutan haserretzen da, oraintxe maitagarri da... Haurrek Garmendia baitan beren aita ikus zezaten nahi nuen.»

Hezur-haragizko izakiak, perfekzioetik urrun direnak. «Pertsona normala nahi nuen. Homer Simpsonen antza ere badu, aldrebeskerian.» Omenalditik ere badute liburu hauek, osaba mutilzahar hark western komikiak eramaten baitzituen itsasoratzen zenero. «Osaba gogoan, eta genero zaharkitua berreskuratu nahian, horrela egin nuen *Garmendia*.» Gizarteak bazterrean utzitako gaiak, gauzak, jendea... errekupeatzea gustatzen zaio Uriberi, kritikaren irizpideen kontra, ofizio kide dituenen esan eta eginen aurka.

Patxi Zubizarreta serie zalea izan da irakurle izan denetan. Idazle izan denean, aldiz, ez da horrelakorik.

«*Usoaren* kasuan, esate baterako, ez nuen serierik idatziko orduko *Egunkariaren* Mantangorri gehigarritik segida eskatu izan ez balidate, orduan hasi baitzen neskaila afrikarra garatzen, aldatzen, lagunez inguratzen, gurasoekin arazoak izaten...»

Garapen horretan, bestalde, hasierako *Usoa* hari buruz Maria Zamakolak egin zuen laburmetraiak eragin handia izan zuela dio Zubizarretak.

Juan Kruz Igerabidek *Grigor* eta *Jonas* ditu serie pertsonaiak. Biei buruz ari da:

«*Grigori* dagokionez, gure semea txikia zela berari bat-batean kontatzen nizkion istorioetatik sortua da. *Jonas*, berriz, eskolarekiko harremanean jaio zen, txikienei

entzundako, edo irakasle adiskideek adierazitako ateraldietatik. Jakina, bizi-ezaugarri horietatik aparte, pertsonaia literario zenbaiten eragina ere hor dago, baina betiere nire bizi-esperientziekin loturik».

Pertsonaia literario horiek, izan, *Iholdi*, *Xola* eta literatura unibertsalekoak ditu Igerabidek.

Mariasun Landak ez zen hur ez urrun joan *Iholdi* sortzeko. *Iholdi*, lehenengo, ahots bat izan baitzen.

«Ahots bat, eta baita haur-ahotsa lantzeko aukera eta ahalik eta gardenen idazteko desafioa ere: baliabide linguistiko minimoen bidez ahalik eta sentimendu sakonenak azaldu nahi nituen.»

Ordurako, bide hori egiten hasita zegoen *Alex* eta *Izeba Txikia* lane-tan.

Seriea

Istorioak idatzi zituzten, pertsonaiak asmatu. Laster, hango eta hemengo eskariz, pertsonaiaren istorio gehiago etorri ziren. Batzuek aurritik pentsatuta zuten serie bat egitea. Beste batzuetan, aldiz, pertsonaiak izandako arrakastak bultzatu zituen bidea berritzera. Toti Martinez de Lezeak ez zuen seriea egiteko asmorik, baina lehenengo liburuak izan zuen erantzunak erabat harritu zituen hala egilea, nola argitaletxea.

Zubizarretaren *Usoa* lanak ere harrera bikaina izan zuen.

«Euskaraz Asun Balzolak ilustratu zuen, gaztelaniazko edizioan Elena Odriozolak, eta berehala itzuli zen katalanera, oraintsu eslovenierara, eta prest dauzkagu ingelesezko, frantsesezko eta polonierazko bertsioak.»

Zubizarretak Gerardo Markuletaren laguntzarekin itzuli zuen seriea gaztelaniara. Eta arazoak Madrilgo argitaletxean:

«Orain baiezkoa, orain ezezkoa... Eta horrek ere neurri batean protagonista ahultzea ekarri zuen, harekiko urruntzea eta gogogabetzea».

Eta hortxe isildu zen *Usoa* espainieraz. «Gaztelaniaz arrakasta izan balu, besterik izango zen...»

Mariasun Landak ez zuen buruan *Iholdi* serie izatea. Ahotsak agintzen du idazle honengan.

«Istorio bat idazteko, hauraren barne-ahots horretaz baliatzen naizenetan *Iholdi* saileko narrazio bat sortzen da. *Iholdi* beti dago nigan eta ahots hori lantzen jarraituko dudala uste dut. Modu batean edo bestean, nire alter-egoa da.»

Landak ez bezala nahi zuen Valverde, hasiera-hasieratik. Liburu saila egin nahi baitzuen *Rita* pertsonaia zuela. «Seriearen proiektua egin eta argitaletxeari aurkeztu nion.» Haiei gustatu, eta zenbait titulu batera publikatuz abiatu zen *Rita* bilduma.

Argitaletxea aipatu du Valverde, eta horretan da Igerabide ere:





«Editoreak zerikusi handia du serie bat osatzerakoan; hasteko, aukera eman behar dizu jarraitzeko, hots, berak ere sinetsi egin behar du pertsonaiarengan; bestetik, nire kasuan behintzat, editoreak sailaren ezaugarriekin asmatzeak eta ilustratzailearen lanak ere garrantzi handia izan dute. Gero, eskoletara noizean behin egiten ditudan bisitek ere zerikusi handia izan dute pertsonaia horien garapenean; pertsonaia baten inguruan irakurlearekiko harremana sortzen denean, askotan irakurleak berak bultzatzen zaitu jarraitzera, nondik jo erakusten dizu».

Beharbada ez zuzenean, baina bai bere erantzun emozionalen bidez.

Mikel Valverde izan du ilustratzaile lagun Uribek, eta ber gisan jokatu dute. Editorearekin hitz egin, bilduma hitzartu... Trilogia osatu dute, baina *Garmendiaren* ibilerak kontatzen ez dute amaitu. Azkena Italian utzi zuten Garmendia, eta hari horri tiraka gehiago idatzi ezinik ez du ikusten egileak.

«Beste hiru liburu etorriko dira, agian. Baina Garmendia izango da beti, zahartzen ez dela, adin berean.»

Garapena

Denbora joan arau, eta pertsonaia berak dituzten liburuak argitaratu ahala, idazleak protagonistaren ezaugarriak aldatzeko aukera du. Batzuetan aukera hori gauzatzen du egileak, batzuetan ez. Patxi Zubizarretak, esaterako, bere horretan utzi zuen *Pantaleon*.



«Ez, hura apenas garatu zen, bidaietako esperientziek helduago egin zuten, noski, baina ezer gutxi. *Usoaren* kasuan, kontrara, neska izugarri heldu eta aldatu zen, batez ere *Karpeta morea* liburukian.»

Kasu horretan, gurean zituen gurasoek *Usoari* bere jatorriaren berri eman ez bazioten ere, neskak jakin egin zuen nondik zetorren, eta horrek krisia eragin zion. Krisia pertsonaiak, krisia egileak.

«Nik neuk ere gaizki pasatu nuen, eta azken liburukia askoz ere dibertigarriagoa egin beharrean gertatu nintzen.»

Rita ere ez zuen aldatu nahi izan Mikel Valverdek. Ez da zahartzen.

«Ez du urterik betetzen, baina hazi bai, hazten da. Liburu bakoitzean, hainbat egoerari egin behar die aurre Ritak, eta erabakia hartu beharrean da beti. Ez du urterik betetzen, baina eboluzionatzen du. Pertsonaia literarioa izateak duen abantaila!»

Igerabidek sortuak dira *Grigor* eta *Jonas*, baina diferente jokatu dute denboraren joanean. Eboluzio ezberdinak izan dituzte.

«Jonasen garapena jarraituagoa da *Grigorena* baino; garapen psikologikoari dagokionez, koherenteagoa. *Grigorena* bat-batekoagoa da, garapen psikologikoari pausoz pauso jarraitzeak ez du hainbesteko garrantzirik harengan, baizik eta bizitzan aurkitzen dituen erronka eta abenturei aurre egiteak; alde horretatik, jolastiagoa da, bihurriagoa, bizitza bat-batean gainera jausten zaigunean bezala.»



Martinez de Lezearen *Nur* hazi egin da istorio bakoitzean. Zazpi-zortzi urteko neska zenak hamaika urte ditu orain.

«Baina, hala ere, ez dut uste gehiago haziko denik, hamabi urtetik aurrera, umeez beste mota bateko istorioak nahiago dituzte-eta.»

Mariasun Landaren *Iholdik* ere garapen pertsonala izan du. Hazi egin da.

«*Amona, zure Iholdi* ipuinean sumatu nuen argi eta garbi. *Iholdik* zituen barne arazoak ez ziren lehengoak, eta lehengo haur-ahots hura ere gehiago zen nerabe batena.»

Uriberen *Garmendia* ere aldatu da, hein batean, bederen.

«Ausartago da hirugarrenean, estreinakoan baino, erabakiak hartzen ikasi du.»

Arrakasta

Badakigu argialetxeek irakurlearen harrerari balio handia ematen diotena. Hala ere, zergatik dute arrakasta halako eta halako pertsonaiek, istorioak berak bezainbeste, edo gehiago? Toti Martinez de Lezearen *Nur* ez da aparteko neska.

«Bai Nur eta bai beraren lagunak, ume arruntak dira. Ez dute sorginik hiltzen edota banpirorik ehizatzen. Abenturak, izan, badituzte, nahi dutena egin dezakete... baina irudimenaz baliatuta!»

Arrakastaren giltza ditu, bestalde, edizio fina eta Juan Luis Landaren marrazkien kalitatea. Eta oharra:

«Lehenengo liburuak arrakasta badu, serieko gainontzekoek egina dute bidea. Irakurleak nekatu arte!».

Eta, Martinez de Lezearen aburuz, irakurleek beraiek zabaltzen dute liburua, ahoz aho.

Kirmen Uribe ez da Nurren egileari kontra egiteko moduan. Iloba du egileak Nur, eta hurbiltasuna aipatu digu Garmendiaren sortzaileak. «Batetik, hurbiltasuna. Bestetik, nik neuk gus-tura irakurriko nuen haur- eta gazte-literatura.» Idazleak ohi duenez. «Sasoi hartan errealismora oso lerratua ikusten nuen hemengo literatura.» Gizarte arazoak gordin-gordin erakusteko joera makurraz ari da, hau da, bateko immigrazioa, besteko indarkeria... direla ezkontza hautsiak, direla askotariko eritasunak, desorekak eta ezberdintasunak. «Nik abentura nahi nuen, baita absurdua ere, eta gizarte kritika.» Horrela larrutu ditu Garmendiak –Uribek–, kazetariak batean, politikariak bestean, boterea hemen, polizia han... «Baina umoretik eta absurdutik egina.» Roald Dahl izan duela maisu esan digu.

«Eta Pixar faktoriaren filmetara ere jo nuen, neska-mutilen rolak, ipuin tradizionalak iraultzeko asmoa.»

Hori du herentzia, hori du ondasun, eta hortik jo nahiko luke aurretzean ere, gizarteari umorezko kritika eginez.

Juan Kruz Igerabidek irakurlearen eta pertsonaiaren artean gauzatzen den identifikazioa jotzen du giltza. Bien artean identifikaziorik baldin bada, irakurleak atzetik jarraituko dio pertsonaiari, istorio gehiago nahiko du. Bestalde, editoreak pertsonaia jakin bati bigarren narrazioa egiteko aukera emateko, nahitaezko da lehenengoak arrakasta izatea.

«Gertatu zait eskoletan-eta umeek beste pertsonaia batzuekin jarraitzeko eskatzea, baina, edo ez du behar adinako arrakastarik izan, edo ni neu ez nengoen motibatua, edo ez nuen ikusten nondik jo nezakeen garbi.»

Eta badu adibiderik: Joxe Panpin.





«Berebiziko aukerak dituela iruditzen zait, baina ez diot tonua ondo hartu, eta hortxe dago bazterrean; izugarri erakartzen nau, baina...»

Zer ote dio Igerabide zailduak arrakastari buruz, non da sekretua? «Benetan, ez dakit ia ezer horri buruz. Gerora jakiten dira gauzak, ez aldeztu aurretik.» Ez dago jakiterik, beraz?

«Aztertzen duzu, esate baterako, oso gustuko duzun pertsonaiaren bat, Peter Pan edo, eta saiatzen zara haren ezaugarriak baliatuz zure pertsonaia osatzen. Magia moduko bat egin behar duzu, baina zure magiak gero besterengan eragina izatea auskaloko kontu bat da.»

Erantzunik ez Igerabidek, «Ez daukat erantzunik» Mikel Valverde.

«Lanean ari naizela, ahal den ondoen egiten saiatzen naiz. Nolabait, uste dut irakurri nahiko genukeen liburua idazten dugula egileok. *Ritari* dagokionez, ez dut ahazten bilduma bat osatzen ari naizela eta, beraz, saiatzen naiz gai ezberdinak lantzen, betiko pertsonaiei eusten eta tituluen arteko oreka lortzen.»

Valverde, ez dago esan beharrik, hamaika komiki irakurria da. Horietan ohikoa da seriea, non pertsonaiak ongi definiturik ageri diren. Valverde hori



du iturri, urte askoan komikiak egin baititu. «Pertsonaiak lantzeko aparteko entrenamendua izan nuen!» Berak liburu erakargarriak egitea du xede, balizko irakurleak irakur ditzan. Ez du arrakastaren giltzarik sakelan, baina gogotik egiten du lan, argitaletxeek beren lana egin ohi duten moduan, kalitatezko liburuak diseinatuz. Azkenean, idazle eta ilustratzaile honen usteko, irakurlearen iritzia da garrantzizkoen, liburuak ahoz aho zabaltzen baitira askotan.

Valverdeko arrakastari buruzko erantzunik ez, Igerabideren erantzun bera Zubizarretak: identifikazioa. Erantzuna biribiltze aldera, eskarmentua:

«Txikitan ni mutiko potoloa nintzen, irakurketan zoragarri baina gimnasian negargarri ibiltzen zena, eta mutiko detektibe eta lodi batekin identifikatzen nintzen, azkarra zelako, abila, mozzorrozalea... eta nolabait ere nire egoera gainditzeko laguntzen zidan. Haur batzuek lagun ikusezina izaten duten bezala izaten ditugu serietako protagonistak».

Arrakasta handiko idazlea dugu Zubizarreta. Baina berak ere ez daki non den arrakasta, zergatik saltzen diren ale batzuk beste batzuk baino gehiago. Horrela izan da orain arte, nahiz eta gaur egun baden irakurlearen berri jakiteko bideak.



«Argitaletxeek, eta zenbait idazlek, oso ondo dakite norentzat idazten duten, adina, sexua... Blog eta gainerakoen bitartez harreman zuzena dute irakurlearekin, ekitaldi pribatu eta bereziak egiten dituzte haiekin.»

Zubizarretak Laura Gallego idazlearen kasua ezagutzen du, liburu berria argitaratu bezperan, antzokian biltzen baititu irakurlerik leialenak, liburua inori baino lehen haiei sinatzeko:

«Ez dut uste hori euskal idazlearen kasua izan denik, baina esango nuke Fernando Morillo, adibidez, bereziki saiatzen ari dela konplizitate eta harreman zuzen hori bideratzen. Idazleari, halakoetan, idaztea baino askoz ere gehiago eskatzen zaio, inplikazio pertsonala».

Idatzi ez bestetan jardutea, hau da, saltzen, batik bat.

Igerabideren iritziz munta handiko kontua da argitaletxeek egin ohi duten marketina.

«Gaur egun, garrantzi izugarria du. Hala ere, gerora benetako arrastoa uzteko, serieek magia literarioa ez badute, haize-kolpe batek itzaliko du horien arrakasta. Gerta liteke, bai, lan batek magia literarioa izatea, eta marketin desegoki batek itzalean uztea. Literaturaren historiak, ba-



tzuetan, berpizten ditu halako lanak, baina zenbat eta zenbat lan bikain geratzen ote da lurperaturik?»

Benetan ona dena azkenean argitara irteten dela entzuna du Igerabidek, eta kasu batzuetan egia dela sinetsita dago.

«Baina, apustu egingo nuke ezagutzen dugun literaturaren historiaren azpian lan harrigarri asko daudela lurperaturik. Kafka gaur egun ezagutu ere ez genuen egingo adiskide batek argitara eman izan ez balitu haren lanak.»

Zubizarretak Euskal Herrian marketin urria izan ohi dela dio, nahiz eta azken urteotan gehiago lantzen ari den, beraren iritziko. Baditu adibideak.

«*Nur*, edo *Rita* –Espainia aldean batez ere–, eta oso oker ez banago, *Bambulo* ere Madrileko autobusetan agertu izan zen.»

Usoaren sortzaileari ez zaio gaizki iruditzen, «baldin eta bilduma benetan sendoa bada».



Ilustratzailea

Idazle eta ilustratzaile da Mikel Valverde *Rita* pertsonaiari dagokionean eta, berak dioenez, bere baitako ilustratzaileak eta idazleak ez diote bata besteari ezinikusirik.

«Ongi eramaten dute elkar. Gustura nago lanean. Besteren testuak ilustratu izan ditudanean nahiko askatasun izan dut, baina, hala ere, zenbait idazlek ezin izaten du kaskoan sartu liburu ilustratuta bi egileren lana dela, idazlea duzu, eta ilustratzailea, biak.»

Garmendian, kasu, Kirmen Uribe dugu lehena, Valverde bera, bigarrena. Uriberen iritziko, ilustratzaile honen irudiak umeak bezalakoak dira. «Nola haurrek distira duten begietan, halaxe dute Mikelen marrazkiek ere, distira.» Eta adierazkortasun handia, Uribek esan digunez.

Juan Kruz Igerabidek Valverderekin egin zuen *Jonas*, Antton Olariagarekin *Grigor*. Lehen liburutik izan zuen harreman estua bi marrazkilariekin.

«Olariaga oso bide luzeko literaturazalea da, eta idazlea ere bai, nolabait. Istorioen, egoeren, pertsonaien... ikuspegi harrigarriak

ditu, arte garaikidearen eragin zabalez osatuak. Gozamen hutsa izan da harekin lan egitea. Valverdek, berriz, komikiaren mundutik datorrenez, pertsonaiei bizitasun handia emateko ahalmena du. Oso pertsonaia dinamikoak egiten ditu, eta oso ondo azaleratzen ditu haien emozioak.»

Asun Balzola, Elena Odriozola eta Jokin Mitxelena izan zituen marrazkilari Zubizarretak.

«Gogoan dut *Mantangorri*-n astero-astero argitaratzen genuela *Usoa*, eta irrikaz egoten nintzela Elenaren [Odriozola] interpretazio plastiko hori, bisual hori larunbatean ikusteko.»

Mariasun Landak urte askoan izan zuen bidaide Asun Balzola, 80ko hamarkadan bertan hasirik.

«Behin, liburu-denda bateko erakusleihoan Asun Balzolaren *Munia y la Señora Piltroner*a topatu nuen, eta *Iholdi* ikusi nuen Munia irudiarengan. Bikiak ziruditen. Estetika berekoak ziren.»

Asuni joan zitzaion Mariasun, Madrilen.

«*Iholdi* liburua ilustratzea eskatu nion, lagun min bihurtu ginen, eta bide emankor baten hasierari ekin genion: asko maite izan genuen elkar. Hainbat liburu egin genituen, estetika berdintsua partekatzen genuelako.»

Elkarlan esturik ez du izan ohi Toti Martinez de Lezeak marrazkila-riarekin. Nork bere lana egiten du, askatasunez. «Nik istorioa idazten dut eta Juan Luisi pasatzen diot, marrazkiak egin ditzan. Zer marraztu behar duen ez diot esaten, soilik, harritu nazan nahi dut. Eta harritzen nau, horratik! Irudi orriak noiz iritsiko diren aseezin itxaroten dut, eta esku artean ditudanean, ez naiz haiei begira aspertzen.» Dioenez, zorte handia du Juan Luis Landaren mailako ilustratzailea ondoan edukita.

Amaiera

Hasteak amaiera du zor eta, horrela, behin halako hasitako serieak bukatu ere egin izan dira.

Igerabidek ez du *Jonas* berritzeko asmorik. «Azken ipuinak lehenbizikoari ispilu-joko bat egiten diolako, zikloa itxiz edo.» Beti da pertsonaia bat berpizteko joera, beste ibilera batzuk kontatzeko, baina, *Jonasi* dagokionean, Igerabidek ezetz dio. Besterik da *Grigor*. «Irekia geratu zen haren bidea, eta beste hari batzuk jorratzea nahiko naturala gerta daiteke.»

Irakurleren batek edo bestek eskatu izan dio Zubizarretari *Usoa* arekin segi dezan, baina ez. «Urte asko dira *Usoa* sortu zela –hamabi bat, gutxienez–, eta indargabetua nago. Gainera, protagonista gaztea litzateke gaur egun, eta nork idatzi ongi eta egoki gazteentzat? Elena Odriozola ere urrun sentitzen da orduko marrazkietatik, eta nik uste berez sortu eta berez amaitu zela, jakin egin behar dela protagonistak askatzen.» Protagonista zaharrak utzi, berriak hartzeko.

Aipatutakoen artean, Valverderen pertsonaiak du sasoirik handiena, *Rita* hor baita oraindik, titulu berriak atera eta atera. «Indartsu nago, eta badut zer



kontaturik Rita pertsonaiatzat harturik.» Eta argitaletxeak ere prest ditu gehiago argitaratzeko.

Serieak, izan direnak, direnak, izango direnak. Sasoi bateko *Pottoko* haiek, Pello Añorgarenak, oraingo *Rita*, Mikel Valverderena, eta etorkizun direnak, gizakia gizaki eta irakurlea irakurle den artean jaioko diren serie berriak.



**Pottoko fue, Rita es, Xola, Iholdi, Usoa...
han sido**

Nadie conoce a ciencia cierta la razón por la que las personas tendemos a coleccionar cosas. Se dirá que no es una actividad exclusivamente humana, que ahí andan los perros guardando huesos aquí y allá para, posteriormente, volver a ellos. Salvando las distancias, naturalmente, los humanos coleccionamos... de todo. Y en este nuestro mundo de la literatura infantil y juvenil, coleccionamos libros, coleccionamos títulos, coleccionamos personajes, coleccionamos series. En el reportaje se ofrece un breve repaso a esos personajes de la literatura en euskera que han llegado a crear una serie. Se aportan las reflexiones de creadoras y creadores de Nur, Jonas, Rita, Usoa, Garmendia e Iholdi. Son algunos de los personajes de éxito de la literatura infantil en euskera que nacieron de modo muy diverso de la mano de Toti Martínez de Lezea, Juan Kruz Igerabide, Mikel Valverde, Patxi Zubizarreta, Kirmen Uribe y Mariasun Landa. Tienen éxito, tienen la palabra...

**It was Pottoko, now it is Rita, it has been
Xola, Iholdi, Usoa, and others**

No one knows exactly why people tend to collect things. One might say that it is not an exclusively human activity since dogs bury bones all over the place so they can go back to them. Relatively speaking of course, we humans collect... just about everything. And in this world of ours which is literature for children and young adults, we collect books, we collect titles, we collect characters, and we collect series. This report includes a brief review of these characters in literature in the Basque language and who have succeeded in being turned into a series, and for this purpose we have the reflections of the creators of Nur, Jonas, Rita, Usoa, Garmendia and Iholdi. They are just some of the successful characters in children's literature in Basque who were born in all kinds of ways with the assistance of Toti Martínez de Lezea, Juan Kruz Igerabide, Mikel Valverde, Patxi Zubizarreta, Kirmen Uribe and Mariasun Landa. They are successful, it's their turn to speak...

Translated by Sarah J. Turtle